

15
URTEURRENA

ortzadar

Larunbata, 2013ko otsailaren 2a. 294 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

development

Madarikatua!

nouvelle

買い物に行

こと、店員

をだまそし

dessins animés

ikusmira

Armanopola!

nouvelle

ドラゴ

お母さん

ノグ似た競技

craftwork

démêlement

analogy

simultaneous

Egokitzapen

音龍

HITZEN 'ITZALAK'...

Nortzuk ahalbidetzen
dute ikus-entzunezkoak
euskaraz jasotzea?

— 4-5. orrialdeak —

...ETA BALIOA

'Balitzen Hioa' antzerki
lanak lau bertsolariren
gogoetak ditu oinarri

— 6. orrialdea —

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski

IRITZIA

Klixex eta esloganak



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

HAUTESKUNDEAK izan berri dira Israelen, eta badirudi Benjamin Netanyahu segituko duela agintean, eta palestinarrek zapalduta jarraituko dutela, eta bake-aukera lehen bezain urri eta urruna izango dela geroan ere. Aspalditik dut judutarrekiko kezka: historian jazarpenik makurrenak izan dituen herria, munduari intelektual distiratsuenak eman dizkiona, eta bi horiek (diskriminaziozko historia eta goi mailako sortzaileak) oraingo bere zampaketa bidegabearantzako aitzakia gisa darabiltzana.

Intelektual sionisten lanak irakurtzeari uztea erabaki nuen orain urte batzuk. Hala ere, Agurtzane Juanena idazle lagunak David Grossmanen liburu bat oparitu dit berriki (*Escribir en la oscuridad* saiakera bilduma), eta salbuespena egin dut. Zorionez, esan beharko, gogoeta interresgarriak topatu baititut bertan. Euskaratu dizuedan hau, esaterako: "Esperientziak esan dezaket, gatazka luze bateko hiritarrek beren egoera deskribatzeko darabilten hizkuntza, axalekoago bihurtzen dela gatazka luzatu ahala. Apurka, klixex eta eslogan sorta izatera murrizten da. Hasieran, gatazkaz zuzenean arduratzen

diren instantziek sortzen dute hizkuntza hori: armadak, poliziak, ministerioek eta bestek; laster batean, gatazkaren berri ematen duten hedabideetara iragazten da, hizkera are makurrago bat ekarriz, bere publikoari istorio irensterraz bat ematen diona (argiro banatuz Estatuak gatazkaren ilunguneetan egiten duena, eta bertako hiritarrek beren buruak nola ikusten dituzten). Eta prozesua, azkenik, gatazkako hiritarren hizkuntza pribatu eta intimoaraino iristen da (haiek gogorki ukatu arren)".

Pasarteak irakurri ahala, gutaz ari zela iruditzen zitzaidan, ZEN planaz eta azken 30 urteotako hizkera antiterroristaren zabalkunde eta bilakaeraz; komunikabideetatik herritarrengana bidean, kultur espresioak ere guztiz kutsatu zituen: zinema dudarik gabe, eta baita literatura ere, neurri handi batean.

Grossman bi aldeez ari denez, galdegin dezagun: zenbateraino izan da gure artean alde bietakoa hizkuntzaren manipulazio hori? Oso neurri txikian, nire ustez. Insurgentziaren aldeak ere bere klixex eta esloganak sortu, sortu izan ditu, baina horiek inposatzeko askoz ere bitarteko gutxia-

go izan ditu: lurralde kontrolaturik ez, komunikabideak gutxi... haien aldeko herritarrek ere aurkarien mezuen zaparrada pean bizi izan dira urte luzeotan. Horrek eraginik izan ote du gatazkaren amaieran? Agian bai, etsaiaren propaganda etengabeak animoen gainbehera ekar dezakeenez gero.

Egoera desorekatu horrek dudarik gabeko eragina izan du, ordea, momentu hau bizitzeko dugun eran: euskaldunen aldetik adiskidetzeta eta bizikidetzarako gogo zinezkoa den bitartean, espainiarren artean nagusi dira mendeku eta umiliazio-gogoak. Eta, horrez gain, esango nuke eragina izan duela eta duela oraindik ere arte-sorkuntzan.

Euskaldunok idatzitako literaturak askoz ere estereotipo gutxiago erabili izan ditu, oro har, eta errealitateari lotuagoa izan da. Hemengo idazleek zintzotasun handiagoz jokatzeko asmoa izan dutelako batetik, baina baita ere, dudarik gabe, bertako irakurleak informatuago zeudelako, eta literaturaren tokian propaganda irensteko prest ez zeudelako. Beste aldean ez bezala, zoritxarrez.

Euskaldunen aldetik adiskidetzeta eta bizikidetzarako gogo zinezkoa den bitartean, espainiarren artean nagusi dira mendeku eta umiliazio-gogoak

Fikzioa

SALDUENAK

1. Ez naiz ni
Karmele Jaio. Elkar.

2. Urtebetetze festa
Castillo Suarez. Elkar.

3. Sinplistik
Hedoi Etxarte. Susa.

4. Zaindari ikusezina
Dolores Redondo. Erein.

5. Mussche
Kirmen Uribe. Susa.

6. Urak dakarrena
Toti Martinez de Lezea. Ttarttalo.

Ez Fikzioa

1. Nafarroako Erresumako kronika ezZinezkoak

Mikel Zuza. Pamiela.

2. Eguberria...

Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozola. Nerea.

3. Su haietatik ke hauek

Iñaki Petxarroman. Txalaparta.

4. Txillardegia

Fito Rodriguez. Erein.

5. Made in Galiza

Sechu Sende. Txalaparta.

6. Aldamenekoa


Ainara Gorostitzu. Elkar.

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Bilbo), Auzolan (Iruñea)

ERAKUSLEIHOA

ERLIIJOA

'Jesusen hasitako bidea'



Jose Antonio Pagola. Esteban Agirre (itzul.). 384 orr. 17 euro.

Jesusi jarraitzeko eskakizunei buruz

Jose Antonio Pagolak, urteetan zehar, lau ebanjelioei buruz egin dituen hainbat komentarioetatik hautatutako batzuk bilduz osatu da liburu hau. Jesusen irekitako biderako sarrera bat izan nahi dute obra honetan batutako testuek. Jesusi jarraitzeak dituen eskakizunetan jartzen da arreta nagusia eta Jesusen Berri Ona gaur egungo gizon-emakumeen eskura jartzea izan da egileak begi-aurrean izan duen nahia liburu moldatzerakoan.

ANTZERKIA

'Eta Karmele?'



Samara Velte. Edo. 72 orr. 8,32 euro.

Zorigaitzeko zirkulu absurdoak

Bi emakume auto baten barruan, Karmeleren zain. Inoiz iristen ez den Karmele, behinola mantxa batek jazarri zuen Karmele... Hari horretan nabarmena da zorigaitzeko zirkulua, emakumeei eta batez ere guztioi dagokiguna, bortizkeriaren itzala dakarkiguna, historia bezain luzea. Ba ote zentzugabekeriaren ikur gorenagorik, amaitu beharreko mundu gerra luzeagorik, gizartearen ispilu zorrotzagaririk? Obra honen egileek umore absurdoaren zartadetan kokatu dute egunerokotasuna astintzen duen gatazka.

GAZTE LITERATURA

'Isilik kantatzeko'



Antton Kazabon Amigorena. Ibaizabal. 112 orr. 11,80 euro.

Poesia eta irudia bat datozenean

Botoitxoa klikatu ondoren, argazki-kameraren begiak margotutako paisaie begira jarri da argazkilaria. Momentu batez, argazkilaria barruko sentipenak eta emozioak piztu zaizkio, eta argazki bakoitzaren alboan idatzi ditu sentimendu horiek. Horixe da liburuak honek jasotzen duena: Antton Kazabon argazkiak eta poemak batera. Azalaren argazkia, aldiz, Oier Kazabonek egina da. Ekin bildumako ale hau 12 urtetik gorako nerabeentzat zuzenduta dago.

ZALDI EROA



Editorial Iparragirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Kordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaria
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Portadako argazkia: Naroa Etxebarria
Lege: Gordailua: BI 1720-06



Cehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Ikus-entzunezkoen itzulpengintzan diharduten edo ibili diren profesionalekin berba egin du ORTZADAR-ek. Diziplina isil horren bitartez, ehunka marrazki bizidun edo film ikusi dituzte euskaraz ikus-entzuleek. Gaur egun, publikoa da bere kabuz azpitoluak egin ohi dituen, jarduera honen eredu-iraulketa berria abiaraziz




Goitik behera, Iñaki Zubizarreta, Danele Sarriugarte, Garazi Arrula eta Txaro Idiakez. PABLO VIÑAS/RUBEN PLAZA

bikoizturiko saioak merkaturatzea. “Diru kontuek egin dute, apika, azpi idazketa gehiago sustatzea bikoizketa baino, hori bai, militantziaren bidez eginikoa gehienetan (Eguzki Bideoak eta beste herri egitasmoak eta gurea bezalako blog eta webguneek kasu)”, diote Elearazi blogekoek.

Euren iduriko, orain artekoa errotik aldatzen ez bada, badirudi ETB-ko zuzendaritza taldea izan eta izanen dela ikus-entzunezkoen bezerorik handiena, eta azken urteotako ereduarekin segituz gero, laster joko du lurra. “Edo apustu sendoa egiten du euskarara itzulitako ikus-entzunezkoen alde, edo akabo. Ohitura eta normaltasuna sortu behar da euskarara ekarritakoen inguruan, eta horretarako belau-naldiak beharko ditugu, noski, baina atzeratzea ez da bidea”, ohartarazi dute.

ARRISKU LARRIAN Iñaki Zubizarretak badaki apostu kontuez: “Bikoizketak euskarari eman diona eta eman diezaiokeena dut gogoan. Ez dut inoiz ahaztuko orain 18 urte pasako bilera hura Iurretako EITB-ren etxean. Udaberria zen, eta ETB-ko arduradunek gogo biziz adierazi ziguten bikoizketa indarberritzeko ahalegin sutua egin behar genuela denok batera: lau film luze astean, gazteentzako eta helduentzako telesailak, marrazki biziak eta dokumentalak atzendu gabe. Baikor etxeratu ginen oso, lanerako prest, baina handik bi hilabetera, inongo esplikaziorik gabe, handitu ordeztu murrizten hasi ziren are gehiago bikoizketa orduen kopurua, urtez urte, eta gaur egun galtzeko arrisku larrian da bikoizketa”.

Joan zen urriaren 4an eta 5ean, EHU-k antolatutako *Krisia eta Politikak. Irrati-Telebista Publikoa ikusmiran* nazioarteko kongresuan, Pompeu Fabrako katedradun emeritu Josep Gifreuk eta EHU-ko katedradun Ramon Zallok bikoizketaren beharra azaldu zuten; Gifreuk Katalunian telebistan eta Zallok Euskal Telebistan, Bea Zabalondok azpimarratzen duen moduan. Josu Amezaga irakasleak ere Eskoziako telebistan azpi-idatzien arrakasta berretsi zuen.



Aztarna zabaltzen dutenak

Mundua izendatzen hasi zirenak, bidegurutzetan harri pilak altxatzen dituztenak, elurretan arrastoa zabaltu digutenak: aztarna jarraitzen dugunok esker ona zor diogu aurrekoei

INORK sekula zapaldu ez duen leku bat zapaltzea: esperientzia hunkigarria izan behar du. Ezagutu ditut horixe bizitako batzuk –hiru mendizale, arkeologo bat eta kobazuloetako uretan igeri egiten duen esploratzaile bat– eta deigarria egiten zait denak bereziki isilak eta apalak izatea.

Nik ez dut inoiz horrelako esperientziarik biziko, baina kontrakoak ere hunkitu egiten nau: beste batzuk aspaldidanik zapaldu duten leku bat zapaltzea.

Askizuko galtzada zapaltzen dut, Erdi Arokoa, gizakion obra bat baino, honez gero paisaiaren elementu bat ematen duena, muino batetik jaisten den erreka petrifikatua, hareharritzko blokeak lurrean haginak bezala tinko sartuta dauzkana, milioika urratsek leundutakoak. Eta han erraz irudikatzen ditut, neure ondoan, duela mende asko bide honetan zebiltzan bidaiariak eta merkatarien gurdiak.

Peña Amaya mendiaren magalean kastro zelta baten kale estuak zapaltzen ditut eta bertako biztanle zaharrak datozkit gogora: hementxe ibiliko ziren zelta kantauriarak ni bezala, eta aldapa gora bihotza niri bezala azkartuko zitzairen, eta pareko mendi hori bera ikusiko zuten. Zertaz hitz egingo zuten, nolakoa izango zen euren ahotsa, zein ilusio izango zituzten bizitzan, zeren beldur ziren, jakingo al zuten itsasoa norantz dagoen, mundua noraino ezagutuko zuten, zer sentituko zuten lautadan soldadu erromatarrek iristen ikusi zituztenean.

Leitza inguruko mendietan pixka bat nahastuta nabil, harri handi baten gainean putreak ikusi eta mapan Putrehaitz toponimoa agertzen dela gogoratu arte. Munduari izenak jartzen hasi ziren asabekin gogoratu naiz, orientatzen laguntzen didaten asaba haiekin. Eta mendian harri pilak altxatzen dituztenekin, besteon urratsez kezkatzen direlako.

Halako batean, Pirinioetan, Ardidengo lakuetara igotzeko bidean, harri pila eta pintura marka guztiak elurpean estalita gelditu dira. Ez dakigu lepo hartara edo hango beste hartara igo behar ote dugun, nirekin datorren lagunak eski eta erraketa batzuen arrastoak aurkitu dituen arte. Haien bidea jarraituz heldu gara Lagues



Ez dakigu lepo hartara edo hango bestera igo behar ote dugun, nire lagunak eski arrastoak aurkitu dituen arte

BIDAIA KOADERNOA

ANDER
IZAGIRRE

anderiza.com



lakuko txabolara, eta bertan mokadu bat jaten dugun bitartean, eskerak eman dizkiegu gure aurretik igo direnei. Aztarna bat jarraitzen duenak abantaila lortzen duelako, eta esker ona zor.

Duela mila urte erromes batek laztan egin zion Jacako katedraleko sarreran dagoen zutabe bati, eta kareharriaren lehen atomoak higatu zituen. Beste batzuek antzeko keinua egin zuten ondoren.

Zutabeari laztan egin zion bigarren erromesarengan pentsatzen dut: keinua errepikatu zuena. Keinua baten errepikapenak zabaltzen duelako bidea. Jacako zutabearen hutsune leunetik eskua pasatzea gustatzen zait, bertan egon diren beste milioika eskuekin batera kokatzea, mendeak eta elurteak zeharkatuz.

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza

944 480 000

posta@artez.net

www.artez.net